

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Justina Elexpuru Arregi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1948)*

Aurkibidea



Biografia



Ubera auzokoa, eskolan erdaraz ikasi zuen. Josu Oregirekin hasi zen euskaraz alfabetatzen eta ondoren Justina bera bihurtu zen irakasle, hark bultzatuta: ikastetxeetako umeei eskolaz kanpoko euskara klaseak ematen ibili zen, gero eskola partikularrak... eta Aranzadi ikastolan hasi zen lanean. Erromara joan zen Soziologia ikastera, eta bueltan euskara irakasten jarraitu zuen: lehenengo Elgoibarren, gero Eibarren eta azkenik berriro Aranzadi ikastolan, Bergaran. Berriketa Plaza izeneko saioan hartu zuen parte, beste hamaika herritarrekin batera.

Zintak

BER-384

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-12-03
- **Iraupena:** 19 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Eskolak gaztelaniaz, baina dotrina eta kantak euskaraz

- **Erref:** BER-384/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Guraso biak baserritarrak eta euskaldunak izan ditu. Aitonetako bat gaztetan Arabara bidali zuten patata ateratzera eta, bide batez, gaztelaniaz ikastera. Uberako auzo-eskolan ikasi zuen eta maistrak ez zuen euskaraz hitz egiten, baina ez zituen ikasleak behartzen horrela aritzeagatik. Haren ordezkio bezala joaten ziren maistrek, ordea, bai. Don Malviño abadeak dotrina ematen zien, eta euskarazko kantak abesten zituzten.

2. Euskarazko klaseak larunbatetan

- **Erref:** BER-384/004
- **Iraupena:** 0:05:37. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Josu Oregirekin eta haren emazte Mirenekin alfabetatu zen. Asteazkenean zehar klaseak hartzen zituen eta larunbatetan berak ematen zituen. Kili-kili aldizkariarekin ikasten zuten. 1971 zen. Etxe partikular batean ere euskarazko klaseak eman zizkion hango gizonari.

3. 70eko hamarkadan udalekuetan

- **Erref:** BER-384/005
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

<p>1972. urtean, Bergarako ikastolan jendea behar zutenez, bertan hasi zen lanean. Lehenago, udalekuetako begirale bezala ibili zen.</p>

4. Filosofia ikasketak Erroman eta Valentzian

- **Erref:** BER-384/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:14:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Erroman hasi zituen Filosofia ikasketak, eta gero Valentzian jarraitu zuen. Bueltatzean, Elgoibarko eta Eibarko ikastoletan lan egin zuen, eta, azkenik, Bergarako Aranzadi ikastolan.</p>

5. Erdaldunak euskaldundu eta euskaldunak erdaldundu

- **Erref:** BER-384/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ubera auzoko bi kasu kontrajarri kontatzen ditu Justinak. Extremaduratik heldu eta modu naturalean euskaldundu zen familiarena, eta auzokoa eta baserrikoa izanik, euskara galdu zuen gizonarena.

6. Euskara ez omen zen hirirako hizkuntza

- **Erref:** BER-384/010
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:16:59. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bilbora bizitzera joan eta seme-alabei euskara transmititu ez zieten bikote euskaldun batzuen kasuak kontatzen ditu . Euskarak ez omen zuen hirirako balio, baserri girorako bakarrik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com